

8.000 hernaniar inguruk egingo du Errenta Aitorpena

■ 5 milioitik 3ra jeitsi dira aurten deklaratu beharrik ez izateko diru irabaziaz ■ Gerta liteke 3 milioi irabazi ez eta aitortu beharra ere ■ Epea: ekainaren 25a arte da.



Henaniko bat Errenta egiteko bulegoari begira, Latsunben.

ERRENTA Aitorpena egiteko epea zabalik dago apirilaren 2a ezkerotik. Eta, ia zko datuak asko aldatzen ez badi-ra, 8.000tik gora hernaniarrek emango dio Haziendari bere diru irabazien berri, eta Gipuzkoan, 300 milak.

NORK EZ

Aurtengo araudi berriaren arabera, 5 milioitik 3-ra jeitsi da Aitorpenik egin behar ez izateko korupua. Baina, hor ere ez dira denak libratuko. Labur eta orokorrean esanda honako baldintza hauek betetzen dituztenak dira benetan egin

beharrik ez dutenak: urteko laneko irabazi gordinak 1.200.000 Pta iritsi ez eta bestelako dirutan 250.000 azpitik ibili direnak; 1.200.000tik 3.000.000 bitartean irabazi, baina, ordaintzaile bat baino gehiago edo kontratu bat baino gehiago izan ez badute eta bestelako dirutan 250.000 azpitik

ibili badi-ra. Bestela Aitortzera behartuta daude.

HERNANIKO DATUAK

Iaz, hernaniar gehienek (%38) Aitorpen bateratua egin zuten. Banaka % 25-tek egin zuten eta familia unitatean sartu gabe, berriaz, % 36ak.

Haziendak Gipuzkoa osoan 44.800 milioi Pta biltzea espero du. Horietatik 31.050 bueltatu egingo ditu eta 13.750-rekin gelditu. Batez besteko horiek Hernaniri aplikatuta: denera, 1195 milioi eman eta 828 josoko ditu bueltan; 367 Haziendarentzat.

KUOTAREN 0.5 GIZARTE EKINTZETARAKO

Kuota osoaren 0.5ari dagokionez, % 39ak gizarte gauzetarako ematen du, %24ak Eliza Katolikoari eta % 37ak zehaztu gabeko gauzetarako.

NOLA EGIN

■ MEKANIZATUA

Latsunben, kiroldegi atzeko bigarren blokean. Zita eskatzeko 943-311999 (euskara) eta 943-311888 (gaztelaniaz)

■ TELEMATIKOA

Internetez, baimendutako profesional eta entitate finantzieroen bitartez.

■ DISKETEAN

Haziendak prestatutako programetan.

■ PAPEREAN

Inprimakiak estankotetan eskatu.

HERNANIARREN IRABAZIAK

2.000garren urtean Deklarazioa egindako hernaniarrek, aitortu zutenaz, **2.351.149 Pta** garbi irabazi zituzten, batez beste. Gipuzkoako batez bestekoa: **2.774.571 Pta**.

HERNANIALDEA AZKEN BIGARREN

Eskualdeka, Hernanialdea da, Oreretalea eta gero, errenta bajuenak dituen eskualdea: Honako hauek dira zenbait herriren batez besteko errentak: Astigarraga: **2.310.013 Pta**. Lasarte: **2.425.877 Pta**. Urnieta: **2.336.485 Pta**. Eta Donostiak: **3.231.753 Pta**. Hala ere, Gipuzkoan Belauntzak du altuena: **3.237.407 Pta**.

■ PELOTA -2. MAILA, BURUZ BURU-

Iñaki Esnalek ezin Otxandorenaren kontra

■ 22-9 galdu zuen atzo Elizondoko *Baztan* pilotalekuan ■ Bukatu zaio txapelketa hernaniarrari.

IÑAKI Esnalek bigarren mailako buruz buruko partidua jokatu zuen atzo Elizondon. Saiatu zen baina ezin izan zuen gararipenik lortu Otxandorena Oronoz-Mugaireko atzelariaren kontra.

FABORITOETAKOA

Aldez aurretik ere partidua zaila zela jakina zen. Otxandorena da bigarren mailako txapela jatzeko faborito garbiena. Iaz ere txapeldunaren kontra erori zen Iñaki. □

■ FUTBOLA -3.MAILA-

Hernaniarrak ezustekoa ematera etzi Lemoara, liderraren etxera

■ Arlonagusia zelaian jokatu dute asteazkenean, arratsaldeko 19:30etan.



Hernaniko jokalaria porteroari aurea hartu ezinda.

3. MAILAKO futbol taldeari aldapan gora jarri zaio denboraldia. Jaitsierako postuetan da orain, eta hortik ateratze ezkerreko puntuak lortzen hasi beharra dauka, kanpoan eta etxean.

LEMOA TALDE GOGORRA

Lemoa lider dihoa, eta bigarren sailkatuak baino 11 puntu gehiagorekin. Etzi Bizkaian irabaztea ez dute nolanhiko erronka txuriberdeek.



Kardaberaz 68 - Tel. 943 55 14 94 - 55 19 12 - Faxe 943 55 11 30



GOIKO ARDOAK



Joseba Gorostegi Goikoetxea
Tel. 943 55 19 15 - Mobil 657 77 71 46



BRINTZA, S.L.

Juan de Urbieto 15
Tel. 943 33 12 67
Faxe.: 943 33 08 92
20.120 HERNANI

LAN AHOLKULARITZA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASEGURUA, INBERTSIOAK



Bertako produktuak
Fruitu exotikoak

Telefonoz eskatzeko:

☎ 943 33 32 75

Antziola 1, HERNANI

ABERRI EGUNEKO EKITALDIA HERNANIN

Burujabetza eta lurraldetasuna aldarrikatu zituen alkateak atzoko ekitaldian

■ *Hernaniko Udalbiltzak* antolatu zuen ekitaldia ■ Eszenatoki paketsu baten alde lan egiteko konpromisoa azaldu zuen.



Hernaniko udal ordezkariak atzoko ekitaldiko agiria irakurtzen.

ABERRI eguna zela-eta ekitaldia egin zen atzo eguerdiko 12:00etan plazan, *EH*, *AB* eta *autetsi independenteek* bultzatutako udalbiltzak deituta. Txalapartari dantzari eta bertolariak aritu ziren Gudarien Plazan, eta alkateak irakurri zuen agiria.

GATAZKA KONPONDU
Ekitaldian, gatazka politikoa konpontzeko Euskal Herria herritarren erabaki librez eta inongo muga eta baldintzarik gabe sortu behar dela esan zuen alkateak. Horretarako, eszenatoki paketsu baten alde lan egingo dutela esan zuen.

ABERRI EGUN ZATITUA
Iaz ez bezala, abertzaleek zatituta ospatu dute aberri eguna, aurtun. Hernaniko EHko zinegotziak Gudarien Plazako ekitaldian izan ziren; EA-EAJkoak Gemikara joan ziren Udalbiltzak (EA, EAJk bultzatutakoak) antolatutako ekitaldira. □

■ ESKUBALOIA

Igoera Play Off-ak Hernanin jokatuko dira

■ Hernani, Canarietako ordezkaria eta Gaztela Leongoa egokitu dira talde berean
■ Play Offak apirilaren 26tik 29ra jokatuko dira, Kiroldegian.

HERNANIKO eskubaloit taldea lider gelditu da bigarren mailako Ligan; orain igoera Play Offak jokatu behar dituzte lehen mailara igotzeko.

HERNANIN, IRUÑAN ETA TARRAGONAN

Hiru sektore ezberdin izango dira estatuan. "A" sektoreko partidua Hernanin jokatu da; beste bietakoak Iruñan eta Tarragonan. "A" sektorea bi taldetan banatua dago. Hernanik Gaztela Leongo eta Canarietako taldeen kontra jokatu beharko du. Beste taldean Asturias, Galizia eta Cantabriako taldeak jokatu dute. Talde bakoitzeko lehenak jokatu dute finala, eta baita mailaz igotzeko txartela ere.

HERNANI-GAZTELA LEON, HILAREN 26AN
27an Gaztela Leon eta canariarrek jokatu dute eta 28an



Defentsan sendo aritu beharko dute etxeok.

Hernanik eta canariarrek. Partiduak arratsaldeko 20:00etan izango dira (beste taldekoak, berriz, 18:00ak inguruan). Finala apirilaren 29an, igandea, jokatu da.

BESTEEN ARRASTORIK EZ
Beste taldeek zein maila duten ez dakite Hernanikoek. Beraz ezingo da jokatu arte jakin igotzeko aukerarik baduten hala ez. □

MOLOTOFF IRRATIA

Bihar jarraituko du emisioak Aste Santuak pasata

■ Bihar 10:00etan hasiko da emisioa Magazin Musikalarekin ■ 11:00etan Hamaiketoff.



Oporretan ibilitako Molotoff-kideak bihar bueltatuko dira estudioa.

■ ERRUGBIA -ERRUGBI ZAZPI-

Selekzioko autatzailea dator ostegunean Landarera

■ Errugbi 7ari buruzko azalpenak emango ditu 19:30etan.



Hernaniko jokalariai partida batean. Orain, zazpinaka jokatuko dute.

FRAN Puentes ordiziarra etorriko da datorren ostegunean Landarera. Fran errugbi 7an (zazpi zazpiren kontra) Espainiako selekzioko autatzailea da eta Atletiko SSeko jokalaria. Hernaniko errugbi jokala-

riek bere esanetara entrenatu eta zerbait gehiago ikasteko aukera izango dute.

Hernaniko jokalariai Ejea de Caballerosa (Zaragozara) dijoaz hilaren 21ean torneo bat jokatzea. □

HERIOTZAK

Juanita Oa Imaz

Ostiralean hil zen 90 urte zituela

Hileta elizkizuna gaur, astelehena, Juan Bataiatzailea parro-
kian arratsaldeko zazpitan.

Cesareo Alonso Hernandez

Larunbatean hil zen 52 urte zituela

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☎ Taxiak:
943 550093
☎ Udaltzaingoa:
943 333288
☎ DYA:
943 464622
☎ Anbulatorioa:
943 557750
☎ Jokalari anonimoak
943 331103

☎ FARMAZIAK

☎ Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943 553582
☎ Gauez: Gil
Lasarte. Nagusia, 24
☎ 943 361529
☎ **ASTEARTEA**
☎ Egunez: Bulnes
Etxeberri, ☎ 943
557738

☎ Gauez: Ansa
Andoain, Ondarreta
☎ 943 591302

☎ **ASTEAZKENA**

☎ Egunez: Irigoien
Elkano, 2
☎ 943 552087
☎ Gauez: Arzallus
Andoain, Plazaola 17
☎ 943 591514